




Kontsumoko prezioak %3,5 igo ziren apirilean

Euskadiko KPI indizea
Urte arteko aldakuntza tasa



Iturria: INE.

Apirilean, EAEko KPIak hiru hamarren egin zuen gora, %3,5ean kokatuz, eta, beraz, indizea bi hila-betez jarraian igo da. Gasaren eta elikagaien prezioaren garestitzeak eragin zuen bilakaera hori. Bestalde, azpiko inflazioa %3,4tik %3,1era jaitsi zen, eta, beraz, KPIaren azpitik geratu da. Halakorik ez zen 2022ko azarotik gertatzen.

Aireko trafikoaren erregistroak onak izan dira berriz

Aireportuetatik igarotako bidaiariak
Urte bakoitzeko apirila. Milakoak




Iturria: AENA.

Apirilean, EAEko aireportuetatik bidaiatu duten pertsonen kopurua %9,7 igo zen iazko hileko berarekin alderatuta. Guztira, 661.603 lagun joan ziren hegazkinez hileko horretan, serie historiko osoan apiril batean inoiz lortu den erregistrorik altuena baita.



Turismoen matrikulazioak gora egin du EAEn

Turismoen matrikulazioa EAEn
Urte bakoitzeko lehen lauhilekoa




Iturria: Trafiko Zuzendaritza Nagusia.

Trafiko Zuzendaritza Nagusiak argitaratutako azken datuen arabera, **aurtengo lehen lauhilekoan 9.182 auto saldu ziren EAEn, aurreko urteko aldi berean baino %5,9 gehiago**. Horrela, joera positiboa berretsi da, pandemia hasi zenetik lehen lauhileko batean izandako erregistratzen altuena markatuta.

Etxebizitzaren salmenta %11,9 jaitsi zen martxo arte

EAEn saldutako etxebizitzak
Urte bakoitzeko urtarriletik martxora bitartean



Iturria: INE.

2023ko lehen hiruhilekoan, erregistratutako etxebizitzaren salerosketa %11,9 jaitsi zen, aurreko urteko aldi berarekin alderatuta. Horrela, EAEko higiezinaren merkatua aurrekusten den interes tasen jaitsieraren zain dago, beharrezko joera hori aldatzen saiatzeko.